

Atlantropa: Afrika eta Europa josita

ALEMANIA, 1920KO HAMARKADAREN AMAIERA. Herman Sörgel (1885-1952) arkitekto alemaniarak Europa eta Afrika fisikoki batzeko proiektu handizalea presatu zuen, Gerra Handiaren ondorengo krisi orokorrari aurre egitea xede. Sörgelek uste zuen Afrikari ez zitzaiola inolaz ere behar bezalako etekinik ateratzen, eta Mediterraneoko itsasoak hiri eta estatu berriak sortzeko erabil zitekeen lur-eremu aproposa betetzen zuela.

Proiektutzarrari Atlantropa esan zion eta, besteak beste, Gibraltar itsasartean presa bat aurreikusi zuen, ozeano Atlantikoari bidea itxiko ziona eta energia elektrikoa sortzeko erabiliko zena. Dardanelos itsasartean beste presa bat eraikiko zuten. Bi ertz horiek itxita itsasoko ura pixkanaka lurrunduko zen eta, hala, urpeko eremu asko berreskuratuko ziren. Ondoren, baliabideak eskuratzeko aukera egongo zen lur eremu lortu berrietan. Sörgelen kalkuluen arabera, mende erdi pasatxoan 600.000 kilometro koadro inguru berreskuratuko ziren.


Baina ur hura guztia ez zen lurrunketa mantsoaren menpe egongo; lehentasunezko helburuetako bat Mediterraneoko itsasoaren zati bat Afrika erdialderaino kanalizatzea eta han itsaso artifizial bat sortzea zen; Saharako basamortua ureztatu eta laborantzian ustiatzeko lurak lortuko omen ziren Mediterraneoko lur afrikaratuari esker.

Zentzurik eta etorkizunik gabeko proiektua badirudi ere, arkitekto eta ingeniari ezagunen babesak lortu zuen Sörgelek; Peter Behrensena, esaterako. Baina proiektua gauzatu zezaketenez, agintari politikoek, ez zioten jaramonik egin. Adolf Hitlerren igoera gogo onez eta itxaropentsu hartu zuen Atlantroparen aitak. Kontinente berri bat sortzeko ideia buruzagi naziaren megaloma-



LITIZ-CC BY

Goian, Atlantroparen irudikatze artistikoa. Azpian, Gibraltarren eraiki beharreko presaren planoak, herman Sörgelek berak diseinatuak.



niarekin bat etor zitekeela pentsatu zuen, baina Hitlerrek hasieratik baztertu zuen.

Alemaniar nazien babesik gabe, Sörgel antipodetara joan zen laguntza bila: juduengana. Erich Mendelsohn arkitektoarekin batera, Sörgelek uste zuen Atlantropen kolono juduentzat nahikoa toki egongo zela eta, hala, juduek ez zutela palestinarrei lurak kentzeko beharrik izango. Baina Bigarren Mundu Gerrak Sörgelen itxaropen urriak uxatu zituen; gobernuak ardura-tuago zeuden suntsitzeaz eraikitzeaz baino.

1952an, Municheko Unibertsitatean hitzaldi bat ematera bizikletan zihoala, auto batek jota hil zen arkitekto ameslaria. ■



Arrastoak

Nondik dator Bloody Mary koktelaren izena?

PARADE MAGAZINE



MARIA I. INGALATERRAKOARI (1516-1558) Bloody Mary (Maria odoltsua) ezizena ipini zioten protestanteen aurkako jazarpen gogorragatik. Baina tomate zukuz eta vodkaz osatutako koktel ezaguna ez omen zuten erregina-aren omenez bataiatu. Batzuek uste dute Mary Pickford aktorea dagoela izenaren jatorrian, edo Chicagoko Bucket of

Blood tabernako Mary izeneko zerbitzaria. Hipotesi zabalduenaren arabera, 1920an Fernand Petiot asmatzaileak koktela Vladimir Smirnoventzat (Smirnoff vodka-gile sendikoa) prestatu zuen eta edabeari Vladimir izena jarri zion. Ingeles hiztunak "Vladimir" oker ahoskatzen hasi ziren eta, azkenean, emaitza Bloody Mary izan zen. ■